EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA.
COMUNIDAD AUTONOMA DEL PAIS VASCO.

LAN HARREMANEN KONTSEILUA.
CONSEJO DE RELACIONES LABORALES.

# ACUERDO SOBRE PROCEDIMIENTO DE RESOLUCION DE CONFLICTOS COLECTIVOS Y LA NEGOCIACION COLECTIVA

# GATAZKA KOLEKTIBOAK ETA NEGOZIAKETA KOLEKTIBOA EBAZTEKO PROZEDURARI BURUZKO AKORDIOA

EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA.
COMUNIDAD AUTONOMA DEL PAIS VASCO.

LAN HARREMANEN KONTSEILUA.
CONSEJO DE RELACIONES LABORALES.

Depósito legal: BI-1247-84
Imprenta Comercial Samper, S. A.
Baracaldo-Vizcaya

# ACUERDO SOBRE PROCEDIMIENTO DE RESOLUCION DE CONFLICTOS COLECTIVOS Y LA NEGOCIACION COLECTIVA

## Artículo 1.º

Las partes signatarias de este Acuerdo expresan su convencimiento de que el diálogo y la negociación permanentes entre los interlocutores sociales representativos, así como un adecuado procedimiento de resolución de conflictos, son los cauces idóneos para resolver sus diferencias, comprometiéndose a potenciar la institucionalización de la negociación colectiva y el Procedimiento de Resolución de Conflictos Colectivos previsto en este Acuerdo dentro del ámbito de la Comunidad Autónoma Vasca.

## Artículo 2.º

Las partes signatarias se obligan a incluir el presente Acuerdo en los convenios que firmen.

## Artículo 3.º

Las partes signatarias se obligan a observar y hacer observar las reglas de: legitimación para negociar; constitución válida de la Comisión Negociadora con más del cincuenta por ciento de cada una de las dos partes; adopción válida de los acuerdos con el voto favorable del sesenta por ciento de cada una de las dos partes de la Comisión; reparto proporcional de los puestos de la Comisión Negociadora en relación a la representatividad que las partes legitimadas tengan reconocida oficialmente; etc., con la expresa renuncia a la presenta-



# GATAZKA KOLEKTIBOAK ETA NEGOZIAKETA KOLEKTIBOA EBAZTEKO PROZEDURARI BURUZKO AKORDIOA

## 1. Artikulua

Akordio honen alderdi sinatzaileak bat datoz gizartezko ordezkatze solaskideen arteko elkarrizketa eta negoziaketak, hala nola gatazkak ebazteko prozedura egoki bat, beraien diferentziak konpontzeko bide egokiak direlakoan, negoziaketa kolektiboaren eta Euskal Autonomia Elkartearen eremuaren barruan Akordio honetan aurrikusiriko Gatazka kolektiboak Ebazteko Prozedura erakundetzea bultzatzeko konpromisua hartuz.

## 2. Artikulua

Alderdi sinatzaileak akordio hau sina ditzaten hitzarmenetan sartzera behartuta daude.

## 3. Artikulua

Alderdi sinatzaileak honako arau hauek betetzera eta beteraztera behartuta geratzen dira: negoziatzeko legitimazioa; Batzorde Negoziatzailearen eraketa alderdi bakoitzetik ehuneko berrogei ta hamarra baino gehiago egonez baliagarria izatea; Batzordearen alderdi bakoitzetik ehuneko hirurogeiaren aldeko botuez erabaki baliagarriak hartzea; Batzorde Negoziatzailearen postuak legitimaturiko alderdiek ofizialki onarturik duten ordezkotasunaren arabera; etab., arauok bete gabe hartutako erabakiak Lan Agintaritzari, erregistra eta Boletin Ofizialean argitara ditzan aurkezteari berariz uko eginez.

ción a la Autoridad Laboral, para su registro y publicación en el Boletín Oficial de los acuerdos adoptados sin cumplir estas reglas.

## Artículo 4.º

Las partes signatarias se obligan a negociar la actualización de los convenios colectivos existentes dentro de la Comunidad Autónoma, sobre la base de que a un convenio le sustituye otro.

A estos efectos, la Comisión Negociadora quedará válidamente constituida como máximo quince días antes de la fecha de finalización de la vigencia del convenio de que se trate y la presentación de las plataformas se realizará entre la fecha de finalización de la vigencia del convenio y los quince días naturales siguientes. En ningún caso el inicio de la negociación se realizará con posterioridad al transcurso del mes de la finalización de la vigencia del convenio.

En el caso de que hayan transcurrido seis meses desde la fecha de finalización de la vigencia de un convenio sin que se haya logrado acuerdo en el que lo sustituya, las partes se comprometen a iniciar el procedimiento de arbitraje obligatorio previsto en este Acuerdo. Cuando se hubiere iniciado una huelga indefinida, como mínimo con veintiséis días de antelación al cumplimiento de los seis meses, el inicio del procedimiento se pospondrá hasta la conclusión de la misma, entendiendo que se renuncia al arbitraje obligatorio si ésta se iniciara con posterioridad a dicho plazo, o cuando llegado el plazo de los seis meses se mantengan medidas de presión distintas de la huelga indefinida, como huelga intermitente y de horas o parcial.

## Artículo 5.º

Las partes signatarias constituirán una Comisión Permanente de Negociación Colectiva, cuyos objetivos básicos serán: impulsar la negociación colecti-





## 4. Artikulua

Alderdi sinatzaileak Autonomia Elkartean dauden hitzarmen kolektiboen eguneraperia negoziatzera behartzen dira, oinarritzat hitzarmen bata bestearen ordez jartzen dela joz.

Ondorio hauetarako, Batzorde Negoziatzailea gehienez eztabaidatzen ari den hitzarmenaren jadanekotasunaren iraungipen data baino hamabost egun lehenago geratuko da osatua eta plataformen aurkezpena hitzarmenaren jadanekotasun data iraungitzearen eta hurrengo hamabost egun naturalen artean egingo da. Negoziaketa ez da inolaz ere hitzarmenaren jadanekotasunaren iraungipenetik hilabetea iragan ondoren haisiko.

Hitzarmen baten jadanekotasunaren iraungipen datatik sei hilabete iragan badira ordezkatzen duenari buruz akordiorik lortu gabe, alderdiek Akordio honetan aurrikusitakoa nahitaezko artekaritzaren prozedurari hasiera emateko konpromisua hartzen dute. Mugagabeko greba bat hasi denean, gutxienez sei hilabeteak bete baino lehenago hogei ta sei egun aurretik, prozeduraren hasiera berori bukatzen den arte atzeratuko da, berori epealdi horren ondoren hasten bada, edo seri hilabetetako epealdia bukatuta mugagabeko grebaz besteko neurriak hartzen direnean, aldizkako greba eta ordukakoa edo partziala kasu, nahitaezko artezkaritzari uko egiten ziola ulertuz.

## 5. Artikulua

Alderdi sinatzaileek Negoziaketa Kolektiborako Batzorde Iraunkor bat osatuko dute, oinarrizko helburutzat hauetxek edukiz: Negoziaketa kolektiboa bultzatzea Autonomia Elkartean, sektore eta langile berriak berorretan negoziaturiko hitzarmen kolektiboetan sar daitezen sustatzea eta negoziaketa egitura eta mailak egokitzea, xede horretarako alderdi interesatuen arteko bidezko erabakiak sustatuz.

Hitzarmen Kolektiborako Batzordearen ekimen, ihardnera eta proposamenek, Lan Harremanetarako Kontseiluaren Plenoaren onespena beharko dute.

va en la Comunidad Autónoma Vasca, promocionar la inclusión de nuevos sectores y trabajadores en convenios colectivos negociados en la misma y adecuar la estructura y niveles de negociación, promoviendo a tales efectos los oportunos acuerdos entre las partes interesadas.

Las iniciativas, actuaciones y propuestas de la Comisión Permanente de Negociación Colectiva, requerirán la aprobación del Pleno del Consejo de Relaciones Laborales.

## Artículo 6.º

Las organizaciones signatarias se comprometen a seguir los trámites voluntarios de conciliación, mediación y arbitraje previstos en este Acuerdo, cuando acuerde iniciarlos el sesenta por ciento de cada una de las partes.

## Artículo 7.º

Las Organizaciones sindicales signatarias se obligan a observar un período de preaviso de cinco días naturales, a contar desde la comunicación a la otra parte, previo al inicio de la huelga.

## Artículo 8.º

Las Organizaciones signatarias de este Acuerdo quedan obligadas a seguir el trámite de conciliación previo al inicio de la huelga, cualquiera que sea el ámbito de ésta.

Salvo el acuerdo de las partes de ampliarlo, el plazo máximo para intentar la avenencia será de cinco días naturales a contar desde la comunicación a la otra parte, previo al inicio de la huelga.

A los efectos previstos en el presente artículo se considerarán hábiles para la conciliación todos los días de la semana, incluidos los festivos.



## 6. Artikulua

Erakunde sinatzaileek Akordio honetan aurrikusiriko borondatezko adiskidetze, bitartekaritza eta artezkaritza izapideak jarraitzeko konpromisua hartzen dute, alderdi bakoitzeko ehuneko hirurogeiak hastea erabakitzen duenean.

## 7. Artikulua

Erakunde sindikal sinatzaileak bost egun naturaletako aurreabisu epealdia gordetzera behartzen dira, beste alderdiari greba hasi baino lehen jakinerazten zaionetik zenbatuta.

## 8. Artikulua

Akordio honen alderdi sinatzaileak grebari hasiera eman baino lehen, beronen eremua ezein dela ere, adiskidetze izapidea jarraitzera beharturik geratzen dira.

Alderdiek luzatzea erabaki ezik, bat etortzea saiatzeko gehienezko epea bost egun naturaletakoa izango da, grebari hasiera eman baino lehen beste alderdiari jakinerazi ondoren zenbatuta.

Artikulu honetan aurrikusitako ondorioetarako adiskidetzeko asteguntzat asteko egun guztiak joko dira, jaiegunak barne.

Bi greba egoera artean hilabeteko aldia dadinean nahitaezkoa izango da adiskidetze izapide berria.

## 9. Artikulua

Alderdi sinatzaileak negoziaketa kolektibotik sortutako Gatazka Kolektiboak Ebazteko beste edozein baino lehen Akordio honetan aurrikusitako Prozedura jarraitzera behartzen dira.

Siempre que medie un mes entre dos situaciones de huelga será obligatorio un nuevo trámite de conciliación.

### Artículo 9.º

Las partes signatarias se obligan a seguir el Procedimiento para la Resolución de Conflictos Colectivos dimanantes de la negociación colectiva previsto en este Acuerdo, con preferencia a cualquier otro.

## PROCEDIMIENTO

### Artículo 10

Los trámites previstos en este Acuerdo para la Resolución de Conflictos Colectivos, serán gratuitos para las partes afectadas. Los costes derivados de los mismos, serán soportados por el Presupuesto del Consejo de Relaciones Laborales, que velará por su correcto funcionamiento.

## CONCILIACION

### Artículo 11

Al objeto de posibilitar la práctica de la conciliación prevista en este Acuerdo, en los conflictos de ámbito superior al de empresa se crean las siguientes Comisiones Paritarias:

a) Una Comisión Paritaria de Comunidad Autónoma, competente en los conflictos de ámbito superior al de un Territorio Histórico.



## PROZEDURA

### 10. Artikulua

Akordio honetan Gatazka Kolektiboak Ebazteko aurrikusitako izapideak doanekoak izango dira ukituriko alderdientzat. Berorien zioz sorterazitako kostuak Lan Harremanetarako Kontseiluaren Aurrekontuaren gain joango dira, zeinak ondo buru daitezen begiratuko duen.

## ADISKIDETZEA

### 11. Artikulua

Akordio honetan aurrikusitako adiskidetzea posibilitatzeko xedeaz, enpresa gainetiko barrutiko gatazketan honako Batzorde Parekide hauek sortuko dira:

a) Autonomia Elkartearen Batzorde Parekide bat, Lurralde Historiko baten gainetiko barrutiari dagozkion gatazketan eskuduna.

b) Hiru Batzorde Parekide: Enpresa gainetiko gatazketan eskudun Lurralde Historiko bakoitzeko bana, bakoitzari dagokion barrutian.

Batzorde hauek izaera iraunkorra edukiko dute, eta erakunde sindikal sinatzaile bakoitzeko kide batek, eta Ugazaba ordezkaritza sinatzailearen aldetik kide kopuru berak osatua egongo da.

Horretarakoxe, aipatutako erakundeek artikulu honetan adierazitako Batzorde Parekideetarako beren ordezkariak (titulareak eta ordezkoak) izendatuko dituzte, Lan Harremanetarako Kontseiluaren Lehendakariari idatzizko jakinerazpena igorriz.

Batzorde bakoitzak bere barru funtzionamendurako arauak onartuko ditu.

b) Tres Comisiones Paritarias: una por cada Territorio Histórico competente en los conflictos superiores al de Empresa, dentro de su ámbito respectivo.

Estas Comisiones tendrán carácter permanente, y estarán integradas por un miembro de cada una de las organizaciones sindicales signatarias, y un número igual de miembros de la representación patronal signataria.

A tal fin, las organizaciones citadas designarán sus representantes (titulares y suplentes), en cada una de las Comisiones Paritarias señaladas en este artículo, mediante comunicación escrita al Presidente del Consejo de Relaciones Laborales.

Cada Comisión aprobará sus normas de funcionamiento interno.

### Artículo 12

Para la conciliación en los conflictos de empresa o ámbito inferior, se constituirán Comisiones Paritarias Sectoriales "ad hoc", integradas por un representante de cada organización sindical afectada signataria del presente Acuerdo y un número igual por parte patronal.

A tal fin las organizaciones signatarias, comunicarán al Presidente del Consejo de Relaciones Laborales los nombres de los miembros titulares y suplentes para las diferentes Comisiones Paritarias, con indicación de los ámbitos territoriales y funcionales en los que deberá intervenir cada uno de los designados.

## CONCILIACION VOLUNTARIA

### Artículo 13

El trámite de conciliación se iniciará por acuerdo escrito en tal sentido, adoptado por el sesenta por



### 12. Artikulua

Enpresa edo azpitiko barrutiko gatazketan adiskidetzeko, "ad hoc" Batzorde Parekide Sektorialak sortuko dira, Akordio honek ukituriko erakunde sindikal sinatzaile bakoitzeko ordezkari banak eta ugazaba aldetik hainako kopuru batek osatua.

Horretarakoxe, erakunde sinatzaileek, Lan Harremanetarako Kontseiluaren Lehendakariari Batzorde Parekide ezberdinetako kide titular eta ordezkoen izenak jakineraziko dizkiote, izendatutako bakoitzak parte hartu behar dueneko lurralde eta funtzio barrutiak adieraziz.

## BORONDATEZKO ADISKIDETZEA

### 13. Artikulua

Adiskidetze izapidea horrixe buruzko idatzizko akordioaren bidez hasiko da, gatazkan dauden alderdi bakoitzeko ehuneko hirurogeiak hartua, zeinetan Adiskidetzailearen izendapena erantsiko baita, Akordio honen 37. artikuluan aurrikusitakoen artean hautatua.

Idazkia Lan Harremanetarako Kontseiluaren Lehendakariari igorriko zaio, zeinak, idazkia jasotzen duenetik zenbatuta, bi lanegunetako gehienezko epealdian, berori izendatutako Adiskidetzaileari eta dagokion Batzorde Parekideari jakineraziko baitie.

Idazkian Adiskidetzailea izendatzeko akordioa agertuko ez balitz, ahalmen hori Lan Harremanetarako Kontseiluaren Lehendakariari ordeztua izan ezik, ukituriko alderdi bakoitzeko ehuneko hirurogeiak erabakia, adiskiditze izapidearen hasiera etendurik geratuko da hutsune hori konpon dadin arte.

### 14. Artikulua

Adiskidetze Bileretarako deia izendatutako Adiskidetzaileak egingo du eta bera izango da bileron

ciento de cada una de las dos partes en conflicto, en el que se incluirá la designación del Conciliador, elegido de entre los previstos en el artículo 37 de este Acuerdo.

El escrito será remitido al Presidente del Consejo de Relaciones Laborales, quien, en el plazo máximo de dos días hábiles a contar desde la recepción del escrito, dará traslado del mismo al Conciliador designado y a la Comisión Paritaria correspondiente.

Si en el escrito no constara el acuerdo de la designación del Conciliador, salvo que tal facultad hubiera sido delegada en el Presidente del Consejo de Relaciones Laborales, por acuerdo del sesenta por ciento de cada una de las dos partes afectadas, el inicio del trámite de conciliación quedará en suspenso hasta que tal defecto quede subsanado.

### Artículo 14

Las reuniones de Conciliación serán convocadas y presididas por el Conciliador designado, a las que asistirán los miembros integrantes de la Comisión Paritaria correspondiente, y un portavoz de cada una de las Organizaciones signatarias afectadas por el conflicto y un número igual por parte patronal.

La primera reunión de conciliación habrá de celebrarse dentro de los dos días hábiles siguientes al de la notificación del Presidente del Consejo de Relaciones Laborales al Conciliador.

### Artículo 15

El trámite de conciliación finalizará:

a) Por acuerdo de las partes afectadas.

b) Por el transcurso del plazo de cinco días naturales a contar desde la primera reunión de conciliación, salvo que las partes afectadas amplíen dicho plazo mediante acuerdo del sesenta por ciento de cada una de ellas.





buru, zeinetara dagokion Batzorde Parekidea osatzen duten kideak, eta gatazkak ukituriko Erakunde sinatzaile bakoitzeko bozeramale bat eta ugazaba aldetik kopuru bera joango baitira.

Lehen adiskidetze bilera Lan Harremanetarako Kontseiluaren Lehendakariak Adiskidetzaileari jakinerazi ondoko hurrengo bi lanegunen barnean ospatu beharko da.

### 15. Artikulua

Adiskidetze izapidea holakoetan bukatuko da:

a) Ukituriko alderdiek halaxe erabakitzen dutenean.

b) Lehen adiskidetze bileratik zenbatuta bost egun naturaletako epealdia iragaten denean, ukituriko alderdiek, bakoitzeko ehuneko hirurogeiak erabakita, epealdi hori luza dezaten salbu.

## NAHITAEZKO ADISKIDETZEA

### 16. Artikulua

Akordio honetako 8. artikuluan aurrikusitako nahitaezko adiskidetzea, gatazkak ukituriko edozein Erakunde sinatzailek eskatuta hasiko da.

Lan Harremanetarako Kontseiluaren Lehendakariak adiskidetze izapidea hasteko eskaera hartuta, berehala 37. artikuluan aurrikusitako Adiskidetzaileetariko bat izendatuko du, ukituriko alderdiek aipatutako idazkian, beraietako bakoitzeko ehuneko hirurogeiak erabakita, izendatuta izan dezaten salbu.

Adiskidetze bileretarako deia dagokion Adiskidetzaileak egingo du bera buru izanik, eta beroietara gatazka barrutian eskudun den Batzorde Parekidearen Kideak eta ukituriko Erakunde Sindikal bakoitzeko bozeramale bana joango dira.

# CONCILIACION OBLIGATORIA

## Artículo 16

La conciliación obligatoria prevista en el artículo 8.º de este Acuerdo, se iniciará a petición de cualquiera de las Organizaciones signatarias afectadas por el conflicto.

Recibido por el Presidente del Consejo de Relaciones Laborales el escrito de petición de inicio del trámite de conciliación, designará inmediatamente un Conciliador de los previstos en el artículo 37, salvo que las partes afectadas lo hubieran designado en el referido escrito, por acuerdo del sesenta por ciento de cada una de ellas.

Las reuniones de conciliación serán convocadas y presididas por el Conciliador correspondiente y asistirán a las mismas los miembros de la Comisión Paritaria competente en el ámbito del conflicto y un portavoz por cada una de las Organizaciones signatarias afectadas.

Si el conflicto fuera de ámbito de empresa o inferior, también podrá asistir un portavoz en representación del órgano colegiado representante de los trabajadores.

La primera reunión de conciliación deberá convocarse dentro de las veinticuatro horas siguientes a la recepción del escrito de iniciación.

## Artículo 17

Las partes afectadas por un conflicto colectivo que tenga su origen en un convenio colectivo de ámbito superior a la empresa, podrán recurrir al trámite de mediación regulado en este Acuerdo.

## Artículo 18

El trámite de mediación se iniciará por acuerdo escrito en tal sentido, adoptado por el sesenta por



Gatazka enpresa barrutikoa edo azpitikoa izango balitz, langileen ordezkari den organo kolegiatu baten ordezkaritza eginez bozeramale bat joan ahalko da ere.

Lehen adiskidetze bilerarako deia hasiera idazkia jaso ondoren hurrengo hogei ta lau orduen barnean egin beharko da.

## 17. Artikulua

Enpresaren gainetiko barrutiko hitzarmen kolektibo batetan sorterazitako gatazka batek ukituriko alderdiek, Akordio honetan arauturiko bitartekaritza izapidera jo ahalko dute.

## 18. Artikulua

Bitartekaritza izapide horrixe buruzko idatzizko akordioaren bidez hasiko da, gatazkan dauden alderdi bakoitzeko ehuneko hirurogeiak hartua, zeinetan Bitartekariaren izendapena erantsiko baita, Akordio honen 37. artikuluan aurrikusitakoen artean hautatua.

Idazkia Lan Harremanetarako Kontseiluaren Lehendakariari igorriko zaio, zeinak, idazki jasotzen duenetik zenbatuta bi lanegunetako gehienezko epealdian, berori izendatutako Bitartekariari jakineraziko baitio.

Idazkian Bitartekaria izendatzeko akordioa agertuko ez balitz, ahalmen hori Lan Harremanetarako Kontseiluaren Lehendakariari ordeztua izan salbu, ukituriko alderdi bakoitzeko ehuneko hirurogeiak erabakita, Bitartekaritza izapidearen hasiera etendurik geratuko da hutsune hori konpon dadin arte.

## 19. Artikulua

Bitartekaritza izapidea ez da aurretik ezarritako inolako prozeduraren menpe egongo. Bitartekariak kasu bakoitzean egoki deritzona ezarri ahalko du.

ciento de cada una de las dos partes en conflicto, en el que se incluirá la designación del Mediador, elegido de entre los previstos en el artículo 37 de este Acuerdo.

El escrito será remitido al Presidente del Consejo de Relaciones Laborales, quien, en el plazo máximo de dos días hábiles a contar desde la recepción del escrito, dará traslado del mismo al Mediador designado.

Si en el escrito no constara el acuerdo en la designación del Mediador, salvo que tal facultad hubiera sido delegada en el Presidente del Consejo de Relaciones Laborales, por acuerdo del sesenta por ciento de cada una de las dos partes afectadas, el inicio del trámite de mediación quedará en suspenso hasta que tal defecto quede subsanado.

### Artículo 19

El trámite de mediación no estará sujeto a ningún procedimiento preestablecido. El Mediador podrá fijar el que en cada caso estime conveniente.

### Artículo 20

El trámite de mediación finalizará por:

a) La aceptación por ambas partes de la propuesta del Mediador.

b) El transcurso del plazo de diez días hábiles a contar desde la notificación del Presidente al Mediador, salvo que las partes afectadas amplíen dicho plazo mediante acuerdo del sesenta por ciento de cada una ellas.

## EL ARBITRAJE

### Artículo 21

Durante la sustanciación del arbitraje las partes se obligan a suspender cualquier medida de presión.



### 20. Artikulua

Bitartekaritza izapidea holakoetan bukatuko da:

a) Alderdi biok Bitartekariaren proposamena onartzean.

b) Lehendakariak Bitartekariari jakinerazten dionetik zenbatuta hamar lanegunetako epealdia bukatzean, ukituriko alderdiek, bakoitzeko ehuneko hirurogeiak erabakita, epealdi hori luza dezaten salbu.

## ARTEKARITZA

### 21. Artikulua

Artekaritzaren bururaketaren bitartean alderdiak presio neurririk ez hartzeko behartzen dira.

### 22. Artikulua

Artekariaren ebazpenak, borondatezko artekaritza nahiz nahitaezkoa izan, hitzarmen kolektiboan itundutakoak duen beste indar dauka.

Lan Harremanetarako Kontseiluaren Lehendakariak Lan Agintaritzari ebazpenak igorriko dizkio heuren erregistrorako eta, beharrezko balitz, dagokion Boletin Ofizialean argitaratzeko, Lan Harremanetarako Kontseiluan erregistroaren kalterik gabe.

## BORONDATEZKO ARTEKARITZA

### 23. Artikulua

Bere jatorria enpresaren gainetiko barrutiko hitzarmen kolektibo baten daukan gatazka kolektibo batek ukituriko alderdiek Akordio honetan araututako artekaritza erabili ahal izango dute.

## Artículo 22

El laudo arbitral, tanto si se trata de arbitraje voluntario como obligatorio, tendrá la misma fuerza y carácter que lo pactado en convenio colectivo.

El Presidente del Consejo de Relaciones Laborales remitirá los laudos a la Autoridad Laboral a efectos de su registro y, en su caso, publicación en el correspondiente Boletín Oficial, sin perjuicio de su registro en el Consejo de Relaciones Laborales.

# ARBITRAJE VOLUNTARIO

## Artículo 23

Las partes afectadas por un conflicto colectivo, que tenga su origen en un convenio colectivo de ámbito superior a la empresa, podrán recurrir al arbitraje regulado en este Acuerdo.

## Artículo 24

El trámite de arbitraje se iniciará por acuerdo escrito en tal sentido, adoptado por el sesenta por ciento de cada una de las dos partes en conflicto, al que se adjuntará el Acta de Sometimiento firmada al menos por el sesenta por ciento de cada una de aquéllas.

La solicitud de arbitraje, junto con el Acta de Sometimiento, será dirigida al Presidente del Consejo de Relaciones Laborales quien dará traslado de los mismos al árbitro designado en el plazo máximo de dos días hábiles a contar desde su recepción.

## Artículo 25

En el Acta de Sometimiento se hará constar, al menos, los siguientes extremos:



## 24. Artikulua

Artekaritzaren izapidea horrixe buruzko idatzizko akordio baten bidez hasiko da, gatazkan dauden alderdi bien ehuneko hirurogeinak hartuta, zeinari behintzat alderdi bakoitzeko ehuneko hirurogeiak izenpetutako Menpe Akta erantsiko zaion.

Artekaritzaren eskakizuna, Menpe Aktarekin batera, Lan Harremanetarako Kontseiluaren Lehendakariari bidaliko zaio, zeinak heuren lekualdaketa izendatutako artekariari harpenetik hasita lanegun biren gehienezko epean bidaliko dizkion.

## 25. Artikulua

Menpe Aktan, gutxienez, hurrengook jazoeraziko dira:

a) 37. artikuluan aurrikusitakoen artean aukeratutako artekariaren izena, edo Lan Harremanetarako Kontseiluaren Lehendakariaren berarizko baimena hura izendatzeko.

b) Artekaritzaren peko zehazturiko gaiak.

c) Artekariaren ebazpenaren men egitearen berarizko onarpena.

d) Ebazpenak hitzarmen kolektibo baten itundutakoaren izaera berbera eta behartzeko beste indar dauzkanaren onarpena.

e) 28. eta 33. artikuluetan xedatutakoaren berarizko onarpena ebazpenaren helegitearen ondoriotarako.

f) Ukituriko alderdien helbidea, telefonoa, e.a., abisu eta jakinerazpen ondoriotarako.

g) Data eta alderdien sinadura.

Menpe Aktak esijitutako betebeharrak eukiko ez balitu, Lan Harremanetarako Kontseiluaren Lehendakariak alderdiei behar den zuzenketa, izapidearen etendurarekin hura gertatzen ez den bezala, eskatuko die.

a) Nombre del árbitro designado de entre los previstos en el artículo 37, o autorización expresa al Presidente del Consejo de Relaciones Laborales para su designación.

b) Puntos concretos que se someten al arbitraje.

c) Aceptación expresa del acatamiento del laudo arbitral.

d) Aceptación expresa de que el laudo tiene el mismo carácter e igual fuerza de obligar que lo acordado en convenio colectivo.

e) Aceptación expresa de lo dispuesto en los artículos 28 y 33 a efectos del recurso del laudo.

f) Domicilio, teléfono, etc., de las partes afectadas, a los efectos de avisos y notificaciones.

g) Fecha y firma de las partes.

En el caso de que el Acta de Sometimiento no réuna todos los requisitos exigidos, el Presidente del Consejo de Relaciones Laborales requerirá de las partes la subsanación correspondiente, con suspensión del trámite en tanto ésta se produzca.

## Artículo 26

Una vez recibida por el Arbitro el Acta de Sometimiento, y dentro de los cinco días hábiles siguientes, las partes afectadas realizarán las alegaciones que estimen convenientes.

En los cinco días hábiles siguientes el Arbitro deberá dar traslado de las respectivas alegaciones a la otra parte. Asimismo deberá oír a continuación a las partes afectadas.

## Artículo 27

Salvo el acuerdo de las partes en el sentido de ampliarlo, el plazo del que dispondrá el Arbitro para dictar el laudo será de quince días hábiles a contar desde la recepción por éste del Acta de Sometimiento, o desde la subsanación de los defectos en su caso.



## 26. Artikulua

Artekariak Menpe Akta jasoz gero, eta hurrengo bost lanegunen barruan, ukituriko alderdiek komenitzat joko dituzten alegazio guztiak egingo dituzte.

Hurrengo bost lanegunetan Artekariak bakoitzaren alegazioak beste alderdiari bidaliko dizkio. Era berean ukituriko alderdiei entzun beharko die.

## 27. Artikulua

Zabaltzeko zentzuan alderdien akordioa izan ezik, Artekariak ebazpena emateko eukiko duen epea hamabost lanegunetakoa izango da, berak Menpe Aktaren harpenaren egunetik, edo hala dagokionean akatsen zuzenketatik, zenbatuko delarik.

## 28. Artikulua

Artekariaren ebazpena loterazlea eta berehalakoan beterazlea izango da. Arrazoinatua izan beharko da eta Menpe Aktan adierazitako gaiei lotuko zaie.

Erakunde sinatzaileetariko batek ebazpena Menpe Aktan eskatutakoari lotu ez zaiola uste badu, jakinerazpenaren hurrengo lanegun bietan, ebazpenaren beteraztasuna etenik gelditzen dela, Lan Harremanetarako Kontseiluaren Lehendakariari berorri buruzko helegitea egin ahal izango dio.

Lehendakariak beste lanegun bien epean ebatziko du, bakarrik ebazpena Menpe Aktari lotu zaionentz erabakiz. Baiezkoan, ebazpena tinko eta beterazlea izango da.

Lehendakariak ebazpena Menpe Aktan eskatutakoari lotu ez zaiola erabakiko balu, hau nuloa izango da eta Artekari berri baten izendapena egingo litzateke, Akordio honen 30. artikuluan aurrikusitako eraren arabera.

Izendatutako Artekariak bere izendapenetik, beti alderdiak entzun ondoren, eta 10 egun naturalen gehienezko epean ebazpena emango du.

### Artículo 28

El laudo arbitral será vinculante e inmediatamente ejecutivo. Deberá ser razonado y ajustarse a las cuestiones concretas señaladas en el Acta de Sometimiento.

Si cualquiera de las Organizaciones signatarias afectadas estimara que el laudo no se ha ajustado a lo pedido en el Acta de Sometimiento, podrá formular recurso sobre tal extremo al Presidente del Consejo de Relaciones Laborales, en los dos días hábiles siguientes a su notificación, quedando en suspenso en este caso la ejecutividad del laudo.

El Presidente resolverá en el plazo de otros dos días hábiles, pronunciándose exclusivamente sobre si el laudo se ha ajustado o no al Acta de Sometimiento. En caso afirmativo, el laudo será firme y ejecutivo.

Si el Presidente resolviera que el laudo no se ha ajustado a lo pedido en el Acta de Sometimiento, éste será nulo y, en el plazo de dos días hábiles, se procederá a la designación de un nuevo Arbitro en la forma prevista en el artículo 30 de este Acuerdo.

El Arbitro designado dictará el laudo en el plazo máximo de diez días naturales a partir de su nombramiento, previa audiencia, en todo caso, de las partes.

## ARBITRAJE OBLIGATORIO

### Artículo 29

El trámite de arbitraje será obligatorio en los casos en los que se den las condiciones previstas en los artículos 4.º, apartado tercero, y 40 de este Acuerdo.



## NAHITAEZKO ARTEKARITZA

### 29. Artikulua

Artekaritzaren izapidea Akordio honen 4. artikuluaren hirugarren atalean eta 40. artikuluan aurrikusitako baldintzetan nahitaezkoa izango da.

### 30. Artikulua

Nahitaezko artekaritzaren izapidea ukituriko edozein Erakunde sinatzailek eskatuta hasiko da.

Hasiera idazkia Lan Harremanetarako Kontseiluaren Lehendakariari zuzendua izango da, zeinak gatazkako alderdiei deitu egingo die lanegun bien epean ospatu beharko den bilera batetara 37. artikuluan aurrikusitakoen Artekari baten izendapena erabaki dezaten.

Akordioa ez lortzekotan, eta batzarraldi berean, Lehendakariak Artekari bat proposatu egingo du. Alderdi bakoitzaren ehuneko hirurogeiak onartua ez balitz, beste bat proposatuko luke. Hau ere alderdi batek ezetsia balitz, bat izaera loterazlez izendatuko du.

### 31. Artikulua

Akordio honen 4. artikuluko hirugarren lerroaldean aurrikusitakoaren ondorioz emandako artekariaren ebazpena bakar bakarrik sortzapen ekonomikoen eguneraren edo berrikuspenetaz izango da, alokairu egitura eta aurreko hitzarmenaren klausulak iraunez.

Aurrekoa gorabehera nahitaezko artekaritzaren erabidea eguneko lansaioari buruzko negoziaketari ihes egiteari ekidin nahirik, eta Autonomia Elkartean sektore berean nahitaezko artekaritzaren ondorioz

## Artículo 30

El trámite de arbitraje obligatorio se iniciará a petición de cualquiera de las Organizaciones signatarias afectadas.

El escrito de iniciación será dirigido al Presidente del Consejo de Relaciones Laborales, quien convocará a las partes en conflicto a una reunión que habrá de celebrarse en el plazo de dos días hábiles para que acuerden la designación de un Arbitro, de los previstos en el artículo 37.

De no lograrse acuerdo, y en la misma sesión, el Presidente propondrá un Arbitro. Si no fuese aceptado por el sesenta por ciento de cada una de las dos partes, propondrá otro. Si también éste fuese rechazado por alguna de las partes, designará uno con carácter vinculante.

## Artículo 31

El laudo arbitral dictado como consecuencia de lo previsto en el artículo 4.º, párrafo tercero, de este Acuerdo, versará exclusivamente sobre la actualización o revisión de los devengos económicos, manteniéndose la estructura salarial y las cláusulas del convenio anterior.

No obstante lo anterior, al objeto de evitar que se propicie la fórmula del arbitraje obligatorio como un medio de eludir la negociación sobre la jornada laboral, y evitar así mismo el que se produzcan desfases en materia de jornada laboral dentro de un mismo sector en la Comunidad Autónoma como consecuencia de los arbitrajes obligatorios, en el laudo arbitral obligatorio el árbitro podrá también pronunciarse en materia de jornada laboral, además de la actualización salarial, cuando el convenio de que se trate contemple una jornada laboral superior a la media del resto de los convenios provinciales de su sector dentro de la Comunidad Autónoma Vasca, y tomando en todo caso como punto de referencia la media de reducción de jor-





eguneko lansaioari buruzko desorekak ekiditeko, nahitaezko ebapenean artekariak alokairu eguneratpenaz gain, eguneko lansaioaz ere erabaki ahal izango du, izango den hitzarmenak daukan eguneko lansaioa Euskal Autonomia Elkarte barruan bere sektore barruko probintzia hitzarmenek duten batazbestekoa baino gehiago izango denean, eta beti ete erreferentzia puntutzat Autonomia Elkartean eta sektore berean negoziatutako probintzi hitzarmenetan egindako lanegun murriztapena izango delarik.

Aurreko lerroaldean ikusitakoa ez da aplikatuko hitzarmenaren lanegunaren eta lehen aipatutako probintzia hitzarmenen batazbestekoaren arteko diferentzia ehuneko 0,5-koa izango denean.

Artekariak ez du inoiz ere ahalmenik izango aguneko lansaioaren egitura aldatzeko.

Artekariaren ebazpenak urtebeteko baliozkotasuna eukiko du izango den hitzarmenaren amaieraren egunetik zenbatuz.

## 32. Artikulua

Nahitaezko artekaritza burutzeko izapidea Akordio honen 26. eta 27. artikuluetan aurrikusitako berbera izango da, kasuon, ebazpena emateko hamabost lanegunen gehienezko epea 30. artikuluan aurrikusitako bileraren egunetik zenbatuko delarik.

## 33. Artikulua

Artekariaren ebazpena loterazlea eta berehalako beterazi beharrekoa izango da. Arrazoinatua izan beharko da eta artekaritza gaiari lotuko zaio, 31. artikuluan ezarritakoaren arabera. Artekariaren ebazpenaren aurkako helegitea, bere ondorioak eta ebazpenarenak ere Akordio honen 28. artikuluan ezarritakoak arauratuta izango dira.

nada realizada en los convenios provinciales negociados en el mismo sector en la Comunidad Autónoma.

Lo previsto en el párrafo anterior no será de aplicación cuando la diferencia entre la jornada del convenio y la media de los convenios provinciales antes mencionados no superen el porcentaje del 0,5 por ciento.

En ningún caso quedará el árbitro facultado para modificar la estructura de la jornada laboral.

El laudo arbitral tendrá una validez de un año a contar desde la fecha de finalización del convenio de que se trate.

### Artículo 32

El trámite para llevar a cabo el arbitraje obligatorio será el mismo que el previsto en los artículos 26 y 27 de este Acuerdo, si bien en este caso, el plazo máximo de los quince días hábiles para dictar laudo, se computará a partir de la fecha de la reunión prevista en el artículo 30.

### Artículo 33

El laudo arbitral será vinculante y de ejecutividad inmediata. Deberá ser razonado y ajustado a la cuestión objeto de arbitraje, conforme a lo establecido en el artículo 31. El recurso contra el laudo arbitral, sus consecuencias, y las de su resolución, se regirán por lo dispuesto en el artículo 28 de este Acuerdo.

## DOCUMENTACION; ACTAS; ACTUACIONES

### Artículo 34

Los Conciliadores, Mediadores y Arbitros, podrán pedir el concurso de expertos, así como aquella información que estimen conveniente, debiendo guardar secreto sobre la misma.



## DOKUMENTAZIOA; AKTAK; IHARDUERAK

### 34. Artikulua

Adiskidetzaileek, Bitartekariek eta Artekariek adituen parte hartzea baita komenitzat jo dezaten informazioa ere eskatu ahal izango dituzte, berorri buruz sekretoa gorde beharko dutelarik.

### 35. Artikulua

Adiskidetze eta artekaritzaren batzarraldi bakoitzetik, zein borondatezko zein nahitaezkoetatik ere, behar den Akta jasoko da.

### 36. Artikulua

Behar diren iharduerak amaitutakoan, Adiskidetzaileak, Bitartekariak edo Artekariak Lan Harremanetarako Kontseiluaren Lehendakariari akordioaz gain, balego, iharduerei buruzko txosten bat, behar diren aktak eta hala dagokionean artekariaren ebazpenak bidali behar dizkio.

### 37. Artikulua

Lan Harremanetarako Kontseiluaren Plenoak Kolegio bi sortuko ditu, bata Adiskidetzaile eta Bitartekariena, eta bestea Artekariena, Akordio honetan aurrikusitako funtzioak betetzeko.

Kolegio biotako kideak Lan Harremanetarako Kontseiluaren Plenoak izendatuak izango dira, Akordioaren alderdi sinatzaileen aho batezko proposamenez.

Pleno honek unez une kolegio bakoitzeko kideen kopurua ezarriko du.

## Artículo 35

De cada sesión de conciliación y arbitraje, tanto voluntarios como obligatorios, se levantará la correspondiente Acta.

## Artículo 36

Finalizadas las correspondientes actuaciones, el Conciliador, Mediador o Arbitro quedará obligado a remitir al Presidente del Consejo de Relaciones Laborales, además del acuerdo, si lo hubiere, un informe sobre las mismas, las actas correspondientes y el laudo arbitral en su caso.

## Artículo 37

El Pleno del Consejo de Relaciones Laborales creará dos Colegios, uno de Conciliadores y Mediadores y otro de Arbitros, para cumplir con las funciones previstas en este Acuerdo.

Los integrantes de estos dos Colegios serán nombrados por el Pleno del Consejo de Relaciones Laborales, a propuesta unánime de las partes signatarias del Acuerdo.

El Pleno determinará en cada momento el número de integrantes de cada Colegio.

## Artículo 38

Cada dos años, cada Organización signataria de este Acuerdo podrá recusar el número de conciliadores-mediadores y de árbitros que a tal efecto fije el Pleno del Consejo de Relaciones Laborales. Por criterio de paridad, la representación patronal podrá recusar igual número que el correspondiente a las representaciones sindicales.

En cualquier momento el Pleno del Consejo de Relaciones Laborales podrá nombrar en la forma prevista en el artículo anterior y revocar el nombramiento de los Conciliadores, Mediadores y Arbitros que estime conveniente.



## 38. Artikulua

Urte bitan behin, Akordio honetako Erakunde sinatzaile bakoitzak Lan Harremanetarako Kontseiluaren Plenoak ondorio horretarako jarriko duen adiskidetzaile-bitartekari eta artekarien kopurua gaitzetsi ahal izango du. Parekotasun erizpideagatik, ugazaba ordezkaritzak ordezkaritza sindikalei dagokien kopuru berbera gaitzetsi ahal izango du.

Edozein unetan, Lan Harremanetarako Kontseiluaren plenoak izendatu ahal izango du, aurreko artikuluan aurrikusitako eran komenigarritzat jo ditzan Adiskidetzaile, Bitartekari eta Artekarien izendapena eta baita gaitzetsi ere.

## 39. Artikulua

Lan Harremanetarako Kontseiluaren Lehendakariak Akordio honetan ematen zaizkion funtzioak Organismo honetako teknikariengan utzi ahal izango ditu, 16. eta 40. artikuluetan agertzen direnak izan ezik, hauek bakarrik Idazkari Orokorrarengan utzi ahal izango dituela.

28., 30. eta 33. artikuluetan aurrikusitako funtzioek utziezinezko izaera izango dute, egoneza edo gaisotasunen kasuetan Idazkari Orokorrarengan egiten den uzketa izan ezik.

## 40. Artikulua

Erakunde sinatzaileetariko batek Akordio honetako arau edo xedapenen ez betetzeagatik aurkez litzakeen salaketak Lan Harremanetarako Kontseiluaren Lehendakariari zuzenduak izango dira, zeinak lanegun bien epean 37. artikuluan aurrikusitakoen arteko Adiskidetzaile bat izendatuko du, eta Adiskidetzaile honek behar den Batzorde Parekidea izendatuko du adostasuna lortzen saiatzeko Akordio honetan nahitaezko adiskidetzerako aurrikusitako izapidearen arabera.

## Artículo 39

El Presidente del Consejo de Relaciones Laborales podrá delegar en los técnicos de este Organismo las funciones que se le asignan en este Acuerdo, con excepción de las recogidas en los artículos 16 y 40, que únicamente podrá delegar en el Secretario General.

Las funciones previstas en los artículos 28, 30 y 33 tendrán carácter de indeclinable, salvo su delegación en el Secretario General en los supuestos de ausencia o enfermedad.

## Artículo 40

Las denuncias que una de las Organizaciones signatarias pudiera plantear sobre el incumplimiento de las reglas o disposiciones contenidas en el presente Acuerdo, serán dirigidas al Presidente del Consejo de Relaciones Laborales, quien en el plazo de dos días hábiles designará un Conciliador de los previstos en el artículo 37, quien convocará a la Comisión Paritaria correspondiente para intentar la avenencia según el trámite previsto en este Acuerdo para la conciliación obligatoria.

Si no se lograra la solución amistosa del problema planteado, las partes afectadas someterán sus discrepancias al arbitraje previsto en este Acuerdo, a cuyo efecto se designará, en el plazo máximo de tres días hábiles, un tribunal arbitral de tres árbitros según la forma prevista en el artículo 30, el cual en el plazo de cinco días hábiles dictará laudo.

Excepcionalmente, y ante la complejidad del asunto que se someta al arbitraje, el tribunal podrá ampliar el plazo en otros cinco días hábiles.

Contra el laudo, que será razonado, no cabe recurso alguno, siendo de ejecutividad inmediata.

## DISPOSICION ADICIONAL PRIMERA

Sin perjuicio de la conciliación obligatoria, las Organizaciones signatarias afectadas por un conflicto



Planteiatutako arazoaren laguntasunezko irtenbidea lortuko ez balitz, ukituriko alderdiek heuren adostezak Akordio honetan aurrikusitako artekaritzaren pean utziko dituzte, honetarako hiru lanegunen gehienezko epean hiru artekaridunen artekaritza epaimahai bat 30. artikuluan aurrikusitako eran izendatuko delarik, zeinak bost lanegunen epean ebazpena emango baitu.

Salbuespen gisa, eta artekaritza peko arazoaren konplexutasunaren aurrean, epaimahaiak epea beste bost lanegunetan zabaldu ahal izango du.

Ebazpenaren aurka, arrazoinatua izango dela, ez dago helegiterik, berehalako beterazi beharreko izango delarik.

## LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Nahitaezko adiskidetzearen kalterik gabe, enpresa barrutiko edo azpitiko gatazka kolektibo batek ukituriko Erakunde sinatzaileek Akordio honetan aurrikusitako beste izapideak erabili ahal izango dituzte konpontzeko.

## BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Lan Harremanetarako Kontseiluaren kidea izaera eta adiskidetzaile-bitartekariaren eta artekariaren berezko funtzioen garapena bateraezinak dira.

## HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Izapideen hasiera idazkien, ebazpenen helegiteen eta Akordio honetan aurrikusitako beste dokumentazioaren ematea bai Lan Harremanetarako Kontseiluaren egoitzan baita behar den lurralde egoitzan ere egin ahal izango da.

colectivo de ámbito de empresa o inferior, podrán utilizar para resolverlo los restantes trámites previstos en este Acuerdo.

## DISPOSICION ADICIONAL SEGUNDA

Es incompatible la cualidad de miembro del Consejo de Relaciones Laborales con el desarrollo de las funciones inherentes al conciliador-mediador y al árbitro.

## DISPOSICION ADICIONAL TERCERA

La entrega de los escritos de iniciación de los trámites, recurso de los laudos y demás documentación prevista en este Acuerdo, podrá hacerse, bien en la sede del Consejo de Relaciones Laborales, o en la sede territorial correspondiente.

## DISPOSICION ADICIONAL CUARTA

El Pleno del Consejo de Relaciones Laborales podrá proponer a las partes, según lo previsto en su ley y reglamento interno, la revisión o modificación de cualquiera de los términos de este Acuerdo. En todo caso, las revisiones o modificaciones que pudieran acordarse exigirán una mayoría del 60 % de la representatividad acreditada por cada una de las partes en el Consejo de Relaciones Laborales.

## DISPOSICION ADICIONAL QUINTA

El presente Acuerdo entrará en vigor, una vez aprobado por el Consejo de Relaciones Laborales, en la fecha de su suscripción por las partes.

Transcurridos tres años, y antes del 31 de Diciembre de 1987, el Pleno deberá proponer a las partes la ratificación de este Acuerdo, para darle carácter definitivo, bien en sus propios términos, bien con las modificaciones que pudiera acordar.



## LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Lan Harremanetarako Kontseiluaren Plenoak, bere legean eta barru arautegian aurrikusitakoaren arabera, Akordio honen edozein terminoren berrikuskapena edo aldaketa proposatu ahal izango die alderdioi. Dena den, hitzartu litezkeen berrikuskapen edo aldaketek Lan Harremanetarako Kontseiluan alderdi bakoitzaren ordezkaritasun benetakotuaren 100eko 60aren gehiengoa exijituko dute.

## BOSTGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Akordio hau Lan Harremanetarako Kontseiluaren Plenoak onetsiz gero jadaneko izango da, alderdiek sina dezaten datan.

Hiru urte eta gero, eta 1987.eko Abenduaren 31-ren aurretik, Plenoak Akordio honen berrespena proposatu beharko die alderdiei, behin betikotasuna emateko, bai dioen arabera edo erabaki litzakeen aldaketekin.

Berrespen-proposamena adierazitako epean onetsiko ez balitz, Akordio hau 1987.eko Abenduaren 31n iraungia izango da.

## 31 ARTIKULUARI ERANTSITAKO AKTA

1.a. Artekariak ezarriko duen gehikuntzaren portzentaia bera izango da kontzeptu ekonomiko guztietarako, hitzarmen edo aurretiazko artekaritza erabakiaren banakako zein kolektiboak ere.

2.a. a) Aurreko hitzarmenean bere aurrekoaren jadaneko zenbateko edo oinarriei buruzko gehikuntza ekonomikoak ezarriz gero, artekaritza erabakiak erizpide hori errespetatu beharko du.

En el caso de no aprobarse la propuesta de ratificación en el plazo señalado, el Acuerdo quedará extinguido el 31 de Diciembre de 1987.

## ACTA ANEXO AL ARTICULO 31

1. El porcentaje de incremento que fije el árbitro será igual para todos y cada uno de los conceptos económicos, tanto individuales como colectivos del convenio o decisión arbitral precedente.

2. a) Cuando en el convenio anterior se hubiesen fijado los incrementos económicos sobre las cuantías o bases vigentes a la finalización del precedente, la decisión arbitral deberá respetar tal criterio.

   b) Cuando en el convenio anterior se hubiesen fijado los incrementos económicos sobre medias anuales de cada concepto, traducidos o repartidos en aumentos en distintas fechas durante el período de vigencia, la decisión arbitral deberá seguir tal criterio.

   c) Otras características específicas del convenio precedente deberán ser igualmente respetadas en la decisión arbitral.

   d) La periodicidad de incrementos inferior al año que hubiera establecido en el convenio precedente, deberá respetarse en todo caso en el laudo arbitral.

3. Cuando en el convenio precedente el incremento pactado para las tablas salariales y salarios garantizados (o reales) hubiera sido diferente, podrá serlo también el que para tales conceptos fije la decisión arbitral.

4. Durante el procedimiento de arbitraje obligatorio las partes podrán elevar al árbitro los acuerdos que se hubieran obtenido sobre puntos concretos o criterios referidos al objeto de arbitraje, debiendo ser obligatoriamente respetados en la decisión arbitral.



b) Aurreko hitzarmenean kontzeptu bakoitzaren urteroko neurriei buruzko gehikuntza ekonomikoak jarriz gero, jadanekotasun aldiko data ezberdinetan gehikuntzatan itzulita edo bananduta, artekaritza erabakiak erizpide horri jarraitu behar dio.

c) Aurreko hitzarmenaren beste berezitasunak ere errespetatuak izan beharko dira artekaritza erabakian.

d) Aurreko hitzarmenak ezarritako urtekoa baino gutxiagoko gehikuntzaren aldizkakotasuna errespetatu beharko da artekariaren erabakian.

3.a. Aurreko hitzarmenean alokairu taula eta alokairu bermatuentzako (edo benetazkoentzako) gehikuntza itundua ezberdina izan balitz, artekaritza erabakiak kontzeptu horietarako ezarriko duena ere izan ahal izango da.

4.a. Nahitaezko artekaritzaren bitartean alderdiek artekariari puntu konkretuei edo artekaritza gaiaren erizpideei buruz lortutako akordioak jaso ahal izango dizkiote, artekaritza erabakian derriorrez errespetatuak izan beharko direlarik.